

TOMAS SALAZAR AIZKORRIKO BIRA MENDI-IBILBIDEAREN XEHETASUNAK

52 km

2700 metroko desnibela

Ano postuak: Etxegarate, San Adrian, Arbelar, Ormakio, Zerain, Urbizu eta azkena helmugan.

Beasaingo Aizkorriko Mendizale elkartetik aterako gara Lazkaorantz. Errepide Nazionalaren azpitik lehen bidegurutzean eskuinera hartuko dugu Batxilergoko Instituturantz. Institutua pasa ondoren, eskuinerantz doan pista bat hartuko dugu. Goranzko bidean baserri baten albotik pasako gara. Aldapa bukatzen denean beste pista bat ikusiko dugu eta zuzen jarraituko dugu hesi batzuei jarraituz. Bideak eskuinerantz egiten du. Ondoren, ezkerretara hartu beharko dugu "Gaitin" baserriatik pasatzeko eta asfaltozko bide estu batetik jarraituko dugu. Olaberrira iritsiko gara.

Beherantz egingo dugu. Lazkaotik datorren errepidea gurutzatuko dugu eta asfaltozko bide batetik zuzen jarraituko dugu. Hortik "Ojarbi" baserrira edo dorretxera helduko gara.

Dorretxea eskuinean utzi eta bideari ekingo diogu, Esparru mendirantz doan goranzko bidetik. Berehala, eskuinetara hartuko dugu, uraren depositoa eta iturria ezkerretara utzita. Bi ate metaliko gurutzatu ondoren, "Esparru" edo "Irumugata" mendiaren magalean egongo gara. Hemendik, "Arantxamendiko portua" (782 m) izeneko zelaietara iritsiko gara. Mendi honen gailurrean Idiazabalgo eta Ataungo lurrak bereizten dituen alanbrezko hesi bat dago. Alanbrezko hesia jarraituz, hegoaldeko norabidean, Lizarbe mendi-lepora iritsiko gara. Idiazabalgo aldeko iturritik jarraituko dugu, "Unanibe" (840 m) mendi-lepora. Hemendik Etxegarateko portura (658 m) jaitsiko gara, sakanetik barrena.

Errepide nazionala gurutzatuko dugu eta hego-mendebaldeko bidea hartuko dugu, GR-121eko arrasto zuri eta gorriak jarraituz. Bide horretatik Otzaurtera iritsiko gara (671 m) Gipuzkoa eta Arabako Partzuergoan sartuz. Hemendik Beundera doan pista hartuko dugu. Beunden pistak eskuinera egiten du. Pista hori utzi eta, berriz ere, eskuinera ondo zaindutako borda batetik pasako gara. Hemendik "Añabaso" mendira igotzen hasiko gara (964 m).


Añabaso menditik jaitsi, erreka gurutzatu eta San Adriango aterpetxera iritsiko gara.

San Adrianetik "Lizarrate" mendirantz doan bidea hartuko da. Mendi honen azpian San Adriango tunela dago. Tunel hori gurutzatuta, erdi-aroko galtzadatik jarraituko dugu. Bideak ezkerretara egiten du, baina guk eskuinetara hartuko dugu. Aldapa gogorra da. Bideko seinaleak jarraituz kalbarioko lehen gurutzeak ikusiko ditugu. "Mandobide"ra iritsiko gara eta Aizkorriara iristeko azken zatiari ekingo diogu (1.528 m).

Urbiarako bidea hartuko dugu eta Arbelarreko txaboletara iritsi baino pixka bat lehenago gorantz doan bidea hartuko dugu Andreaitzeko pasabidera. Gipuzkoa eta Arabako Partzuergotik aterako gara. Ondoren bidegurutze batean izango gara eta zuzen jarraituko dugu Oamendi mendiaren ertzetik joanez, Ormakikoko menditontorreraino.

Ondoren, Zeraingo bidea hartuko dugu, balizaz seinalizatutako bide bat jarraituz. Hemendik, orain dela gutxi egin duten pista batera jaitsiko gara. Aska baten parera iristen garenean, eskuinera doan alanbraz hesitutako pista bat hartuko dugu. Hortik bigarren aska baten parera iritsiko gara eta eskuineko bidetik, Urruzti baserriaren ondotik, Barbarisetik Zegama eta Zerain lotzen dituen errepidean izango gara. Ostatuaren atzeko aldetik jarraituko dugu, hormigoizko pista batetik. Hemendik, Segura eta Mutiloa lotzen dituen errepidera iritsiko gara. Segurarantz doan errepidea hartuko dugu eta ezkerretara hartuko dugu Segurako "Santa Engrazia" auzora iristeko.

Azken aldapari ekingo diogu. "Zelaundieta zarra" eta "Zelaundieta berri" baserrietatik pasako gara eta Idiazabalgo Urbizu auzora iritsiko gara. Ondoren, Muxika baserrietik Gudugarreta auzora iritsiko gara, Anzizar auzotik herrira sartu eta hirigunea gurutzatuz Beasaingo Bideluze plazan amaituko dugu bira, Aizkorri Mendizale Elkartearen.



ANTOLATZAILEA:
AIZKORRI MENDIZALE ELKARTEA
www.tomaizkorrikobira.com
 E-mail: traizkorrikobira@gmail.com

BABESLEA:
BEASAINGO UDALA

Ayuntamiento de
OLABERRIA

IDIAZABALGO
 udale

ZEGAMA
 UDALA

GIPUZKOAKO ETA ARABAKO
 PARTZUERGOKA

PARZONERIA GENERAL DE
 GIPUZKOA Y ARABA

Segurako udala

MUTILOA
 udala

ZERAIN
 HERRI TXIKI BIZI BAT

ORMAIZTEGIK
 UDALA

Tomas Salazar Aizkorriko Bira

Araudia

- Ingurunearen zaintza bermatu behar da, ingurunea errespetatuz eta zakarrak jasoz.
- Aldez aurretik izena ematea gomendagarria da.
- Irteera ordua, goizeko 6:00etan izango da, Aizkorri Mendizale Elkartearen egoitzatik. Parte hartzaileak 5:45ak baino lehen irteeran egon beharko dira.
- Parte-hartzaile guztiek txarteletan azalduko diren kontrol-guneetatik pasatu beharko dute. Fitxaketa digitala izango da.
- Mendi martxa amaitu gabe uzten bada, antolakuntza jakin arazteaz gain, fitxaketa txartela bueltatu behar da.
- Probako azken kontrola 14 ordu pasatu arte ez da itxiko. Beraz, arratsaldeko 8etan, azken kontrola itxiztat emango da.
- Hau mendi ibilaldia da eta ez lasterketa. Hori dela eta, ibilbide luzeko beste irteeretan bezala ez da irabazlerik izango. Parte hartzaileen artean SAILKATU DIRENAK eta SAILKATU EZ DIRENAK bereiziko dira.
- Bide guztian zehar osasun-zaintza izango den arren, bakoitza da bere erabakien eta jarreraren arduradun.
- Arautegiaz kanpo sor daitezken edozein arazoz erabakia hartzeko ardura osoa, antolakuntzak izango du.
- Honako datu hauek eskatuko zaizkie ofizialki parte hartzeko interesa dutenei:
 - Izena eta bi abizenak.
 - Gauden urteko federazioko lizentziaren zenbakia (NAN) edo antzeko agiriren bat.
 - Partaide den klubaren edo taldearen izena.
- Federatuak ez dauden parte hartzaileak segurorako gehigarria ordaindu beharko dute.
- EMFren ILletan izena eman dutenek baimena ematen diote EMFri beharrezkotzat jotzen dituen argitalpen inprimatu nahiz informatikoetan beren datu pertsonalak erabiltzeko.
- Antolakuntza araudi hau aldatzeko eskumendun da.
- TOMAS SALAZAR AIZKORRIKO BIRAN parte-hartzeko izen emateak, ARAUDIA ontzat jotzen dela esan nahi du.

Aizkorri Mendizale Elkartea

